**UDALBATZAK 2019KO AZAROAREN 26AN EGINIKO OHIKO OSOKO BILKURARI DAGOKION AKTA**

Errenteriako Udaletxean, bi mila eta hemeretziko azaroaren 26ko arratsaldeko 18:30 zirela, lehenengo deialdian eta Aizpea OTAEGI MITXELENA (EH Bildu Orereta/Errenteria) alkate anderearen esanetara, ondorengo zinegotziak elkartu dira:

***EH Bildu Orereta/Errenteria***

- Alazne KORTA ZULAIKA
- Itziar OSTOLAZA GALDOS
- Eñaut GRACIA IBARRA
- Bernar LEMOS TABERNA
- Garazi LOPEZ DE ETXEZARRETA AUZMENDI
- Eneko DEL AMO JIMÉNEZ
- Jose Ramon GURRUTXAGA ZUBIZARRETA
- Iñaki QUERALT COIRA

***Euskal Sozialistak/Socialistas Vascos (ES-SV)***

- Jose Angel RODRIGUEZ MEDINA
- Goizane ALVAREZ IRIJOA
- Isaac PALENCIA CABALLERO
- Joseba ECHARTE MARTÍN
- Yosleidy Cristlna FERRERA CEDEÑO
- Iñaki RUIZ ALONSO

***EAJ-PNV***

- Maite PEÑA LÓPEZ (Gai-zerrendako 5. puntuan iritsi da).

**ACTA DE LA SESION ORDINARIA DE PLENO DE LA CORPORACION CELEBRADA EL DIA 26 DE NOVIEMBRE DE 2019**

En la Casa Consistorial del Ayuntamiento de Errenteria, siendo las 18:30 horas del día 26 de noviembre del año dos mil diecinueve, se reúnen en primera convocatoria, bajo la Presidencia de la Alcaldesa Aizpea OTAEGI MITXELENA (EH Bildu Orereta/Errenteria), las y los siguientes Concejalas y Concejales:

***EH Bildu Orereta/Errenteria***

- Alazne KORTA ZULAIKA
- Itziar OSTOLAZA GALDOS
- Eñaut GRACIA IBARRA
- Bernar LEMOS TABERNA
- Garazi LOPEZ DE ETXEZARRETA AUZMENDI
- Eneko DEL AMO JIMÉNEZ
- Jose Ramon GURRUTXAGA ZUBIZARRETA
- Iñaki QUERALT COIRA

***Euskal Sozialistak/Socialistas Vascos (ES-SV)***

- Jose Angel RODRIGUEZ MEDINA
- Goizane ALVAREZ IRIJOA
- Isaac PALENCIA CABALLERO
- Joseba ECHARTE MARTÍN
- Yosleidy Cristlna FERRERA CEDEÑO
- Iñaki RUIZ ALONSO

***EAJ-PNV***

- Maite PEÑA LÓPEZ (Se hace constar que se incorpora a la Sesión en el punto 5º del Orden del

C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

- Elixabete MURUA MINDEGUIA
- Garbiñe OYARBIDE IRURETAGOYENA

***Elkarrekin Errenteria***

- Ion COLLAR RIOSECO
- Maite GARTZIA ONTIVEROS
- José Manuel FERRADÁS FREIJO

Bertan dago, egintza fedatzeko, Nagore SARASOLA OTERMIN idazkari nagusia.

Era berean, bertan dago Irune SOTO COTORRO udal kontu-hartzailea.

**1. Udalbatzak 2019ko urriaren 29an ohiko eginiko osoko bilkurari dagokion bideo-akta, egoki bada, onartzea.**

Oharrik gabe onartu da.

**2. Ondorengo ebazpenen berri ematea: Alkatetzarenak eta Zinegotzi-ordezkarienak, 3142 zk.tik 3371 zk.ra, (biak barne) eta Tokiko Gobernu Batzordearenak.**

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

**3. Kontuhartzailetzako txostenak.**

Día).

- Elixabete MURUA MINDEGUIA
- Garbiñe OYARBIDE IRURETAGOYENA

***Elkarrekin Errenteria***

- Ion COLLAR RIOSECO
- Maite GARTZIA ONTIVEROS
- José Manuel FERRADÁS FREIJO

Asiste y da fe del Acto, la Secretaria General Nagore SARASOLA OTERMIN.

Igualmente asiste la Interventora Municipal Irune SOTO COTORRO.

**1. Aprobación en su caso de la videoacta correspondiente a la sesión ordinaria del 29 de octubre de 2019.**

Se aprueba sin observación alguna.

**2. Dar cuenta de Resoluciones de la Alcaldesa y de Concejales Delegados, nºs 3142 al 3371 (ambos incluidos) y de la Junta de Gobierno Local.**

El Pleno queda enterado.

**3. Informes de Intervención.**

Ondokoa jakinarazi da:

- 2019 ekitaldiko ordainketa epearen informazioa: 3. hiruhilabetea.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

Se da cuenta del siguiente:

- Plazo medio de pago factura durante el ejercicio 2019: Trimestre 3.

El Pleno queda enterado.

**4. Proposamena: 2019-KALD00015-00 Kreditu Gaikuntza kreditu aldaketa espedientea onartzea..**

**4. Propuesta: aprobación del expediente de modificación de créditos 2018-KALD00015-00, Habilitación de Créditos.**

Ikusita udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gaikuntzaren modalitatekoa, 2019-KALD-000015-00 zenbakiduna

Visto el expediente de modificación de créditos, mediante habilitación de créditos, identificado con el nº 2019-KALD-000015-00, que afecta al presupuesto vigente de este ayuntamiento.

Ikusita Kontuhartzaileak idatzitako txosten eta ziurtagiriaren arabera espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 31. artikuluan ezarritakoarekin.

Visto que según el informe y certificación emitidos por la Interventora Municipal, dicho expediente está ajustado a la normativa que le es aplicable, en concreto a los requisitos establecidos por el artículo 31 de la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre, Presupuestaria de las Entidades Locales.

2019ko azaroaren 20an, Ogasun zinegotzi ordezkariak proposatuta, Antolaketa batzordeak gai honen aldeko irizpena eman zuen.

Visto que en fecha 20 de noviembre de 2019, a propuesta de la Concejala Delegada de Hacienda, la Comisión de Organización dictamina favorablemente el presente asunto.

Udalbatzak, aldeko 20 botorekin (EH Bildu Orereta/Errenteria, Euskal Sozialistak/Socialistas Vascos (ES-SV), EAJ-PNV, Elkarrekin Errenteria), aho batez, hau erabaki du:

El Pleno de la Corporación por unanimidad, con 20 votos a favor (EH Bildu Orereta/Errenteria, Euskal Sozialistak/Socialistas Vascos (ES-SV), EAJ-PNV, Elkarrekin Errenteria**).**

**E R A B A K I A**

**A C U E R D A**

**Lehenengoa**.- Onartzea udal honen aurrekontuko

**Primero**.- Aprobar el expediente de modificación de

kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gaikuntza modalitatean, proposamenean ageri den xehetasunarekin Udalaren aurrekontuan txertatu daitezen enplegua sustatzeko (TALKA enplegu plana) 3. sektoreko zenbait erakunderi eman beharreko dirulaguntza izendunak.

créditos, modalidad habilitación de créditos, para la inclusión en el presupuesto de este Ayuntamiento las subvenciones nominativas a determinadas empresas del 3er sector para el fomento de empleo (Plan de empleo TALKA), que se relacionan en la propuesta formulada al respecto.

**Gaituko den gastua (gastu-aurrekontua)**
Gasto que se habilita (presupuesto de gastos)

| **Kap./Cap.** | **Izena / Denominación** | **Euroak / Euros** |
|---|---|---|
| **4** | DIRULAGUNTZAK ETA TRANSFERENTZIA ARRUNTAK<br>SUBVENCIONES Y TRANSFERENCIAS CORRIENTES | 73.718,55 |
| | | |
| | **GAITUTAKO KREDITUAK GUZTIRA**<br>**TOTAL CREDITOS HABILITADOS** | **73.718,55** |

**Finantziazioa (sarrera-aurrekontua)**
Financiación (presupuesto de ingresos)

| **Kap. / Cap.** | **Izena / Denominación** | **Euroak / Euros** |
|---|---|---|
| **4** | DIRULAGUNTZAK ETA TRANSFERENTZIA ARRUNTAK<br>SUBVENCIONES Y TRANSFERENCIAS CORRIENTES | 73.718,55 |
| | **FINANTZAKETA GUZTIRA**<br>**TOTAL FINANCIACIÓN** | **73.718,55** |

**Bigarrena**.- Espedientea jende aurrean jarri

**Segundo**.- Exponer el expediente al público por

C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

hamabost laneguneko epean, behin iragarkia GAOn eta udal web orrian argitaratuta. Espedientea behin betiko onartuta geratuko da baldin eta, jendaurrean jarri eta handik hamabost lanegun igaro ondoren ez bada erreklamaziorik aurkezten.

plazo de quince días hábiles tras publicar el correspondiente anuncio en el BOG y web municipal. El expediente quedará definitivamente aprobado, si transcurrido el plazo de quince días hábiles de exposición al público, no se hubiese presentado reclamación alguna.

**Hirugarrena**.- Behin betirako onartuta geratuko den espedientearen kopia Gipuzkoako Foru Aldundiari bidaltzea.

**Tercero**.- Remitir copia del expediente definitivamente aprobado a la Diputación Foral de Gipuzkoa.

**5. Zaldunborda proiektuari buruzko mozioa, ERRENKOALDE elkarteak aurkeztutakoa.**

**5. Moción presentada por la asociación ERRENKOALDE sobre el proyecto de Zaldunborda.**

Maika Martín Herasek, ERRENKOALDE-Errenteriako merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu-enpresen elkarteko ordezkari gisa, mozio hau aurkezten du:

Maika Martín Heras, como representante de la Asociación de Comerciantes, Hosteleros y Servicios de Errenteria ERRENKOALDE, presenta la siguiente moción:

Hondarribiko udal-gobernuak, 2019ko ekainaren 26an, 1134/2019 alkate-dekretua eman zuen, hasierako onespena emateko Higertoki S.L. enpresak sustatuko Alorreko Planari, Zaldunborda Gainako partzelazioari dagokionez. Hartara, oniritzia eman zion Zaldunbordako lur kutsatuetan “outlet village” bat eraikitzeari.

El gobierno municipal de Hondarribia, con fecha de 26 de junio de 2019, emite el decreto de alcaldía 1134/2019 donde autoriza aprobar inicialmente el Plan Parcial, promovido por Higertoki S.L., en referencia a la parcelación de Zaldunborda Gaina, dando así el visto bueno a la construcción de un “outlet villaje” en las tierras contaminadas de Zaldunborda.

Proiektuari argi berdea eman zaio hain justu ere Eusko Legebiltzarrak ekainaren 27an aho batez lurralde-antolamenduari buruzko legea onartu bezperan, lege horrek zentro komertzial berriak eraikitzeko aukera mugatzen baitu Euskadin.

Se ha dado luz verde al proyecto, aprobándolo un día antes, el 27 de junio, de que el Parlamento Vasco aprobara por unanimidad la Ley de Ordenación Territorial que pone coto a la construcción de nuevos centros comerciales en el País Vasco.

Aipatutako proiektuak ehun denda baino gehiago izango lituzke, 28.000 $m^2$-ko instalazioa, 133 milioi euroko inbertsioa eta 1.800 ibilgailurentzako aparkalekua. Azken batean, “outlet” hiri bat izango litzateke, Estatuan Madril eta Bartzelona bezalako hirietan daudenen parekoak.

Se trataría de un proyecto que englobaría a más de cien comercios, una instalación de 28.000 $m^2$, una inversión de 133 millones de euros y una zona de aparcamiento para 1.800 automóviles. En definitiva, sería un pueblo “outlet” como los que tienen en el estado las ciudades de Madrid y Barcelona.

Proiektuak kalte konponezina eragingo dio Bidasoaldeko eta Oarsoaldeko hurbileko merkataritzari, eta ingurumenean ere ondorio larriak izango ditu.

Las afecciones del proyecto pasan por ocasionar un daño irreparable al comercio de proximidad de toda la zona de Bidasoaldea y Oarsoaldea, y tienen graves consecuencias para el medio ambiente.

Dendarteanek (Gipuzkoako merkatari-elkarteen taldea) adierazi du *“Europan egindako azterlan guztiak bat datoz, eredu hauek sortzen dituzten lanpostuen bikoitzak suntsitzen dituzte. Horrez gain, enpleguaren prekarizazioa sustatzen dute, eta lehia desleiala bultzatzen, zentro komertzial horiek ez dutelako gure lan-hitzarmena aplikatzen, estatukoa baizik”*. Bestalde, Gipuzkoako merkataritza-elkarteen taldeko presidentearen ustez, horrelako guneek kalte egiten diote hirien garapenari, *“hirietatik inbertsioak uxatu eta hiriak desertifikatzea eragiten dutelako, eta horrek frogatzen du urbanismo-mota hori interes orokorraren aurkakoa dela”*.

Desde Dendartean, agrupación de asociaciones de comerciantes de Gipuzkoa, han llegado a afirmar que “*todos los estudios hechos en Europa son unánimes al concluir que estos modelos destruyen el doble de empleos de los que crean. Además, impulsan el empleo precario y fomentan la competencia desleal, puesto que esos centros comerciales no aplican nuestro convenio laboral, sino el del estado*”. Por otro lado, el presidente de esta agrupación de asociaciones de comerciantes de Gipuzkoa cree que este tipo de centros son perjudiciales para el desarrollo de las ciudades, ya que “*espantan las inversiones de las ciudades y hacen que éstas se desertifiquen, lo cual demuestra que es un tipo de urbanismo que va en contra del interés general*”.

Kontuan izanda Zaldunborda Jaizkibelen magalean dagoela, proiektu honek landazabala suntsituko luke eta arriskuan jarri Natura 2000 sareak babesten duen eremua. “Bidasoaldeko Lagunak” talde ekologistak adierazi duenez, *“Zaldunborda Jaizkibel eta Aiako Harria lotzen dituen korridore ekologian dago. Hartara, Jaizkibel arriskuan dago, Aiako Harriari lotuta egon behar duelako, eta landazabalak*

Teniendo en cuenta que Zaldunborda está en las faldas del monte Jaizkibel, este proyecto supondría, también, la destrucción del paisaje de campiña y pondría en peligro la zona que protege la red Natura 2000. La agrupación ecologista de la comarca “Bidasoaldeko Lagunak” afirma que “*Zaldunborda está situado dentro del corredor ecológico que une Jaizkibel y Aiako Harria. Por eso, Jaizkibel está en*

*horretarako ezinbesteko garrantzia du. Hori guztia galdu egingo litzateke eta ez luke atzera bueltarik izango. Guztia ere interes ekonomiko partikularren alde egin da"*.

*peligro, puesto que tiene que estar unido a Aiako Harria, y la campiña tiene una importancia vital en ello. Todo eso se perdería, y sería irreversible, a favor de intereses económicos particulares*".

Laburbilduz, bere garaian Irungo Udalbatzak 2017ko maiatzean adierazi zuen moduan, proiektuak ekologian, mugikortasunean eta ekonomian eragin oso negatiboa izango du.

En definitiva, tal y como se pronunció en su día el Pleno del Ayuntamiento de Irún por unanimidad, con fecha de mayo de 2017, el proyecto generará unas consecuencias ecológicas, de movilidad y económicas muy negativas.

Horregatik, guztiagatik, eta badirudienez proiektuak aurrera doala eta gauzatuko dela, hau PROPOSATZEN DUGU:

Por todo ello, y en vista de que ahora el proyecto parece que avanza en su materialización, SE PROPONE:

1.- Errenteriako Udalak bere iritzia adieraz dezala eta onar dezala makroproiektu honen aurkako jarrera.

1.- Que el Pleno del Ayuntamiento de Errenteria se posicione y apruebe su oposición a este macropoyecto.

2.- Errenteriako Udalak eska diezaiola Hondarribiko Udalari atzera egin dezan Zaldunbordan "outlet" proiektua gauzatzeko asmoan.

2.- Que desde el Ayuntamiento de Errenteria se inste al Ayuntamiento de Hondarribia a dar marcha atrás en su pretensión de materializar el proyecto de "outlet" en Zaldunborda.

3.- Errenteriako Udalak babes dezan "Zaldunborda Gelditu" plataformak proiektu honen aurka atera duen manifestua.

3.- Que el Ayuntamiento de Errenteria apoye el manifiesto que ha sacado la Plataforma "Zaldunborda Gelditu" en contra de este proyecto.

Jarraian, Martín andereak mozioko hirugarren puntua kentzea proposatu du manifestua oraindik ez baita idatzi.

Seguidamente, la Sra. Martín propone eliminar el tercer punto de la moción ya que el manifiesto aún no se ha redactado.

Udalbatzak, aldeko 21 botorekin (EH Bildu Orereta/Errenteria, Euskal Sozialistak/Socialistas Vascos (ES-SV), EAJ-PNV, Elkarrekin Errenteria), aho batez, hau erabaki du:

El Pleno de la Corporación por unanimidad, con 21 votos a favor (EH Bildu Orereta/Errenteria, Euskal Sozialistak/Socialistas Vascos (ES-SV), EAJ-PNV, Elkarrekin Errenteria**).**

**E R A B A K I A**

**Onartzea ERRENKOALDE elkarteak** Zaldunborda proiektuari buruz aurkeztutakoa mozioa (gaiaren azalpen-zatian jasota dago).

**A C U E R D A**

**Aprobar** la moción presentada por la asociación ERRENKOALDE**.** sobre el proyecto de Zaldunborda reflejada en la parte expositiva del presente asunto.

**6. Boliviako Estatu kolpeari buruzko mozioa, Oarso Taldeak aurkeztutakoa.**

Kepa Olaizek, Oarso Taldea ordezkari gisa, mozio hau aurkezten du:

Azaroaren 10ean Boliviako Estatu Plurinazionaleko Presidente Evo Moralesek bere dimisioa aurkeztu zuen, poliziek eta militarrek behartuta. Dimisioa eman baino lehen Morales presidentearen, bere gobernuko kideen eta Boliviako beste hainbat hautetsien senideen kontrako erasoak eman ziren.

Estatu Kolpe honen ondorioz, egoera benetan larria da eta konfrontazio zibilerako arriskua handia dela azpimarratu nahi dugu, izan ere estatu kolpea bultzatu duten indarrek errepresioarekin erantzuten hasi zaizkio Moralesen alde antolatutako herritarrei. Aurreko hilabetean izandako hauteskundetan Evo Moralesek bozen %46 lortu zituela eta hauteskunde horiek errepikatzeko prestutasuna adierazi duela azpimarratzekoa da ere.

Egoera larri honen aurrean, **Grupo Oarso Taldeak** Errenteriako Udalari proposamen hau onartzeko eskaria egiten dio:

**Erakunde adierazpenaren Proposamena.**

**6. Moción presentada por el Grupo Oarso Taldea en relación con el golpe de Estado de Bolivia.**

Kepa Olaiz, como representante del Grupo Oarso Taldea, presenta la siguiente moción:

El 10 de noviembre el presidente del Estado Plurinacional de Bolivia Evo Morales presentó su dimisión, obligado por la acción de policía y militares. Previamente, se habían producido ataques conta familiares del propio presidente Morales, miembros de su gobierno y de otros cargos bolivianos.

Queremos subrayar que a consecuencia de dicho Golpe de Estado, la situación es realmente grave y existe gran riesgo de confrontación civil, dado que las fuerzas que impulsaron el golpe de estado están respondiendo a la ciudadançía que se ha organizado a favor de Evo Morales. Cabe resaltar que en las elecciones celebradas el pasado mes Evo Morales obtuvo el 46% de los votos y se mostró dispuesto a repetir las elecciones.

Ante esta situación, **Grupo Oarso Taldea** solicita al Ayuntamiento de Errenteria que apruebe la siguiente propuesta:

**Propuesta de declaración institucional.**

- Indar guztiarekin salatzen du Bolivian ematen ari den estatu kolpea.
- Moralesen kontra altxatu direnei eskubide zibil eta politikoen errespetua eta gatazka negoziazio eta akordioaren bidez konpontzera dei egiten die, eta Estatu Kolpe honen kanpo-bultzatzaileei injerentzia gelditu eta Boliviako soberania errespetatzera deitzen ditu.

- Gure babesa adierazi nahi die Evo Morales presidenteari eta El Alton eta Bolivia osoan kolpearen kontra mobilizatzen ari diren herritarrei.
- Herritarrei dei egiten die Estatu kolpe honi aurre egiteko antolatzen diren mobilizazioetan parte hartzera.

- Muestra su firme condena por el Golpe de Estado que se está produciendo en Bolivia.
- Hace un llamamiento a quienes se han levantado en contra de Morales para que respeten los derechos civiles y políticos y resuelvan el conflicto de manera negociada y acordada. Asimismo, insta a quienes impulsan el Golpe de estado desde el exterior a que cesen la injerencia y respeten la soberanía de Bolivia.
- Mostramos nuestro apoyo al presidente Evo Morales y a la ciudadanía que se está movilizando en El Alto y en toda Bolivia en contra del golpe.
- Se convoca a la ciudadanía a que participe en las movilizaciones que se organicen para hacer frente a este golpe de Estado.

Udalbatzak, aldeko 18 botoren gehiengoarekin (Orereta/Errenteriako EHBildu, Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos eta Elkarrekin Errenteria) eta 3 abstentziorekin (EAJ/PNV), hau erabaki du:

E R A B A K I A

**Onartzea** Oarso Taldeak Boliviako Estatu kolpeari buruz aurkeztutako mozioa, (gaiaren azalpen-zatian jasota dago).

**7. Galdera-eskariak.**

Ez da galderarik edo eskaerarik egin.

El Pleno de la Corporación por mayoría de 18 votos a favor (Orereta/Errenteriako EHBildu, Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos y Elkarrekin Errenteria) y 3 abstenciones (EAJ/PNV).

A C U E R D A

**Aprobar** la moción presentada por el Oarso Taldea en relación con el golpe de Estado de Bolivia, reflejada en la parte expositiva del presente asunto.

**7. Ruegos y Preguntas.**

No se produce ruego ni pregunta alguna.

----------

Eta aztertu beharreko gai gehiagorik ez zegoenez, Alkateak bilkura amaitutzat eman du egun bereko 19:20 zirela. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin, akta hau egin dut. Idazkari Orokorrak.

----------

Y sin más asuntos de los que tratar, la Presidenta levanta la Sesión, siendo las 19:20 horas del día de la fecha. Y para constancia de lo tratado y de los acuerdos adoptados, extiendo la presente Acta. La Secretaria General.

NAGORE SARASOLA OTERMIN - 44164957N

Firmado digitalmente por NAGORE SARASOLA OTERMIN - 44164957N
Nombre de reconocimiento (DN): c=ES, o=Ayuntamiento de Errenteria - Errenteriako Udala, ou=CERTIFICADO ELECTRONICO DE EMPLEADO PUBLICO, title=SECRETARIA GENERAL, cn=NAGORE SARASOLA OTERMIN - 44164957N, givenName=NAGORE, sn=SARASOLA OTERMIN, serialNumber=IDCES-44164957N
Fecha: 2020.01.14 09:50:18 +01'00'